

Kutxabankek 11,2 milioi euroko mailegua izenpetu du Gasteizko Udalarekin

- **2022ko aurrekontuan jasotako inbertsioak finantzatzea izango da helburua.**
- **Bankuak udalarekin duen harreman komertziala estutu du.**

2022ko abenduaren 27an. Gasteizko Udalak Kutxabanki esleitu dio **15 urterako 11,2 milioi euroko** maileguaren harpidetza, xedapen-aldia barne dela. Helburua **2022ko aurrekontuan jasotako inbertsioak** finantzatzea izango da.

Finantza-akordioa **Gasteizko alkate** Gorka Urارانek eta **Kutxabankeko Banka Instituzionaleko zuzendari** Jaione Lamyk sinatu dute. Finantza-erakundeak eta Udalak duten **harreman estua sendotzeko** aukera ematen du akordio edo hitzarmenak, eta bat dator Kutxabankek Arabarekin eta arabarrekin duen konpromisoarekin, bai eta Lurralde Historikoan garatzen diren gizarte-bokazioko programekin ere.

Gasteizko Udalak eta Kutxabankek duela gutxi berri zuten elikadura eta higienerako oinarrizko produktuak erosteko txartel ez-finantzarioak emateko lankidetzaren hitzarmena.

2016an aktibatu zenetik, guztira 4.300 familiak baliatu dute sistema hori, ez du jaulkipen-kosturik Udalarentzat, eta hobekuntza ekarri du oinarrizko kontsumo-produktuak familia behartsuen artean banatzeko egin behar den kudeaketan.